



## KALITATEA ESKOLA TXIKIETAN

Eskola Txikietako komunitatea osatzen dugunok kezkatuta gaude eta aipatutako kezka areagotzen ari zaigu. Han eta hemen, Hezkuntza Ordezkaritzako arduradun desberdinekin egindako bileretan baieztapen kezkarriak entzun ditugu, eta kezka bete gaituzte guraso, irakasle zein herri txikietako udaletako agintariak. Eskola Txikietan ez dela kalitatezko heziketarik eskaintzen edota haurrek sozializatzeko arazoak dituztela entzun izan dugu, besteak beste. Kalitatearen kontzeptua era interesatuan erabiltzen dela iruditzen zaigu, ez baitago inongo ikerketetan oinarritua, are gehiago, dauden ikerketek argi eta garbi utzi baitute Eskola Txikietan kalitate altuko heziketa integrala ematen dela. Hortaz, eta baieztapenek funts egokia izan dezaten kalitateaz zer ulertzen duen esan beharko luke adierazpenak egiten dituen orok. Zer da kalitatea?, zergatik eman dezake kalitate handiagoa maila bateko ikasgelak?, masifikazioa?...

Eskola Txikietako irakasleok ez dugu dudarik eskola "handietan" kalitatea eskaintzen dela, baina garbi daukagu, era berean, Eskola Txikietako kalitate mailak ez diela inolako inbidiarik aipatutako ohiko eskolei, are gehiago esango genuke, ikerketek diotenez maila ikaragarri egokia eskaintzen dugu gure eskoletan. Hau ez da baieztapen hutsala, ikerketek baieztatzen dute gure esana. Dena dela, nahi duenarentzat ikerketak irakurgai daudenez nahiago dugu azaltzea, gure iritziz, eta gure esperientzian oinarrituta, Eskola Txikietan kalitatea eskaintzeko ditugun abaguneak:

### ▪ KALITATEA PEDAGOGIAN:

- Ikaskuntza kooperatiboa: ikasle desberdinak (adin aniztasunaren ondorioz) elkarrekin ikasten dute. Elkarri lagunduz eta elkarreraginean, berdinen arteko ikasketa bideratzen dugu.
- Erritmo ezberdinak errespetatu daitezke, azkarrago zein motelago dabilzanentzat. Ikasle gutxi izanik gela berean, ikasle bakoitzaren jarraipen zehatza egin dezake irakasleak eta bere jarduna ikaslearen beharretara egokitu.

- Metodologia gure ezaugarrietara egokitua: adinaren aniztasuna kontuan izanda interesguneetan oinarritzen gara.
  - Mugikortasuna edo taldekatze malgua: ekintzaren arabera talde handia, txikia, saio tutorizatuak, eskola osoa batera... antolatzen dugu
  - Hizkuntza aberatsa: euskarak hain beharrezkoak dituen arnaguneak bertan topatuko ditugu.
  - Herrian txertatua: eskola irekia, herrian gertatzen den guztia erabiltzen dugu eta bihurtzen dugu ikaskuntza prozesua.
  - Talde txikiak izanik lanerako giro lasaia lortzen dugu.
- **KALITATEA HARREMANETAN:**
- Kooperazioa eta elkarreraginaren ondorioz ikasleen arteko elkartasuna lortzen dugu.
  - Adin anitzak izanik, ikasleen arteko desberdintasunak handiak dira. Desberdintasun hauek onartzeaz gain, gure indargune bihurtzen ditugu, eta honekin, ikasleen arteko errespetua lortzen dugu.
  - Urtero taldearen egitura aldatu egiten da, eta horrek ikasleari rol desberdina izateko aukera paregabea eskaintzen dio. Ikasturte batean gelako handiena izan daiteke eta hurrengoan txikiena...
  - Inplikazio osoa dugu herriko eta eskolako bizitzan.
  - Belaunaldien arteko harreman aberatsa dugu.
  - Ikasle berrien (atzerritarrek...) zein bestelakoen integrazio egokia. Kontuan izan behar da ikasle hauek talde txikietan integratzen direla, gainera hizkuntza maila aberatsa entzuten dutela eta horrekin batera herriko bizitzan erabat parte hartzen dutela.
  - Ikasle txikien egokitzapen egokia: normalean eskolan hasi aurretik, ikasle txikiek ezagutzen dituzte eskolako beste ikasle zein irakasleak.

Ez dago esan beharrik, honek guztiak ikasleari autoestimua egokia izaten lagunduko diola batetik, eta bestetik, autonomia lantzeko eta harreman aberatsak sortzeko baldintza paregabeak izango ditu, arestian esan dugun bezala Eskola Txikietan harremanak gela artekoak, eskola artekoak, herriarekin eta belaunaldi desberdinen artekoak direlako. Ondorioz, ikasleak Eskola Txikian sustrai sendoak egingo ditu eta sendo jarraitzeko aukera izango du bere bizitzaren ibilbidean. Urtez urte

DBH-ko eskoletan arazorik gabe integratzen direla ikusten dugu, eta baita aurrerago ondorengo ikasketa zein lanbideetan ere.

Gure ustez egin diren hainbat adierazpenek sentsibilitate eskasa erakutsi dute Eskola Txikietako irakasleekiko, profesional dudamudako bezala aipatzen gaituelako; gurasoekiko, zalantzaz betetzen dituelako eta, udalekiko, herriko eskolak zalantzan jartzen dituelako.

Honegatik guztiagatik, lerro xume hauekin, Eskola Txikietako irakasleok ozen eta harro esan nahi dugu Eskola Txikietan kalitate maila egokia eskaintzeko zein harremanetarako baldintza paregabeak ditugula eta orain arte bezala, ilusioz jarraituko dugula lanean. Errealitate honetaz jabetu eta Eskola Txikiekiko begirunea zein errespetua izan dezazuela eskatzen dizuegu. Elkarlanerako gure gogoia eta prestutasuna adierazten dizuegu, izan ere, bide horretatik lortuko bai dugu kalitatea hobetzea.

**ESKOLA TXIKIETAKO IRAKASLE ZEIN GURASOEN ORDEZKARITZA**